

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Kako egonarri motx

ERRONKARIKO GOI MUTURRETAN errodoendroa, *Rhododendron sp.*, bezala beheko barrenetako zoko hezeetan topatuko dugu baltsamina arrunta, *Impatiens balfourii*, ustezko beste sarkin bat. Lehorretik ihesi, erreka eta ibai inguruak eta zuhaizpeen mugak bilatzen ditu. Ezinegona, egonarri gutxikoa adierazi nahi du *Impatiens* izenak. Ukitu ordurako edo berez, fruitua josturetatik lehertzen da eta sei metroraino ere haziak jaurtitzen ditu, ehunka batzuk landare bakoitzak. Ezusteko lehertze horretatik datorkio izena. Urteko landarea denez, hurrengo urtean erneko diren haziak zabaltzeko era hau du kakoetako bat. Beste bat ere badu, haziak sortzeko beharrezko bitartekari dituen intsektu polenzaleak erakartzeko, nektarra sortu eta pilatzen duen kako berezi bat du loreak.

Egonarri motxeko landareok ezagunak dira mundu osoan. Loretarako erabiltzen den Indiako *Impatiens balsamina* baltsaminaren lorea, azkazalak margotzeko erabiltzen da, nektar eta guzti.

Indiarra eta geurekoaren artean bada beste baltsamina berezi bat. Gondwana kontinentetzarra zenaren granito-hondarrak omen, Nafarroako Luis XV.a errege herabearren finantza ministro izan zen Jean Moreau de Séchellesen ohoretan bataiatutako Seychelles uhartean. Tokiak egiten du landarea berezi; landareak eta denok. Garai batean Edengo baratze mitikoen aztarna hartzen zitzairen 32 uharte



*Impatiens balfourii.*

hauetan ez beste inon bizi diren 76 landare ezagutzen dira. Tartean *Impatiens gordonii*. Urtetan desagertutzat jotzen zena ez zen galdua. 1995ean Mahé irla handiaren hogeita hamar ale, eta 147 biztanleko Silhouette irlan ehunen bat aurkitu ziren. Besteak beste, Seychelleseko Botanikoa *in situ*, eta Ingalaterrako Cornuallesko Eden Proiektua eta Kewko Botanikoa eta Britainiako Brestekoa *ex situ*, galdu gabe *in vitro* ugaltu eta landatzen ari dira.



**Sa(ha)ra.** Martxoaren leheneko hauteskuntzetan kiratsari ihesi, Saharara, barka Sarara alde egin nuen. Eta han topatu argazkiko zuhaitz errenkada. Ikusi enborrak, zuzenak batzuk, oker askoak beste batzuk... Bata bestearen aldamenean hazi beharrak ederki moldeatu ditu zuhaitzen eiteak edo

formak. Azkarren hazi direnak zuzenak dira, eta haien itzalean haztea egokitu zaienak enborra argiaren alde okertu beste aukerarik ez dute izan. Argia da landareen energia iturria eta nahitaez harantz egin behar. Saharan ere landareek elikagai gutxi eta haien bila moldatu behar... Saran bezala nonahi.